

**AKORDIOA, HAURRESKOLAK PARTZUERGOKO II. HITZARMEN KOLEKTIBOAREN  
52 ARTIKULUARI IDAZKERA BERRIA EMATEKOA (HITZARMEN KODEA 8602535  
ZK)**

**Eibarren, 2024ko apirilaren 17**

**BILDUTA**

Haurreskolak Partzuergoaren aldetik:


Xabier Aizpurua Telleria eta Eugenio Jimenez Ibañez, Haurreskolak Partzuergoaren Zuzendaritza Batzordearen kide gisa

Langileen aldetik:

Hiart Cabrera Ansola, Haurreskolak Partzuergoan ordezkartzaren %53,19 duen LAB sindikatuaren ordezkari gisa.

Sonia Perez Arce, Haurreskolak Partzuergoan ordezkartzaren %29,79 duen STEILAS sindikatuaren ordezkari gisa.

**ADIERAZI DUTE:**



Haur-hezitzaile lanpostuaren ezaugarriak kontuan hartuta, eta erretiroa hartu aurretik jarduera pixkanaka murrizten lagunduko duten neurri moduan, Haurreskolak Partzuergoaren Lan-Hitzarmenaren 52. Artikuluan jasota dator 60 urtetik gorako hezitzaileek haurrei zuzeneko arreta emateko denbora egunean bi orduz murrizteko aukera, denbora hori koordinaziorako, prestakuntza lanetarako eta zentroaren antolaketa orokorrerako erabiliz.

Murrizketa horretan aurrera egiten jarraitzeko borondatearen adierazpide, Haurreskolak Partzuergoaren 52. Artikulua aldatzea erabaki dute aldeek

Horrenbestez, goian adierazitakoa kontuan izanik, honako erabakia hartu dute:

**AKORDIOA**

1.- 60 urtetiko gorako langileen lanaldiaren murrizketa.

Haurreskolak Partzuergoaren Lan-hitzarmenaren 52. artikulua aldatzea **erabaki da**, honela idatzita geratuko dena:

*"52. Artikulua.- 60 urtetik gorako langileak*



1.- 60 urtetik gorako langileei zuzeneko arretarako denbora murriztea. 60 urtetik gorako hezitzaileek haurrei zuzeneko arreta emateko denbora murriz dezakete, egunean bi orduz. Denbora hori perstakuntza lanetarako eta zentroaren antolaketa orokorreko lanetarako erabiliko da.

2.- 63 urtetik gorako hezitzaileak, aurreko idatz-zatian adierazitako murrizketaren ordez, ez-ohiko lanaldi murrizketa eskatzeko aukera izango du, baldin eta errelebo-kontratua hitzartzeko baldintzak betetzen ez baditu. Edonola ere, neurria bertan behera geratuko da hezitzaileak ondoren errelebo-kontratua sinatzen badu. Murrizketa hori bere lanaldi osoaren herena izango da eta ez du eraginik izango ordainsariatzen.

Ez-ohiko murrizketa hau metatu ahal izango da eta osorik gozatu dagozkion egunak ikasturte bakoitzaren amaieran."

Akordio hau sinatzen da Haurreskolak Partzuergoaren mendeko lan-legepeko langileentzako 2008ko Hitzarmen Kolektiboaren gainerako artikuluen negoziazioarekin jarraitzearen kaltetan izan gabe, eta indarrean sartuko da sinatzen den hurrengo egunean.

Elena Aizpuru Segurola eskuordetzen da akordioaren izapidetzea egiteko lan-agintaritzaren aurrean.

Eta hala jasota gera dadin, eta aldeak ados daudela egiaztatzeko, bi aldeek sinatu dute:

Haurreskolak Partzuergoko Zuzendaritza      Sindikatuen aldetik:  
Batzordearen aldetik:

